

BANAKETA KANALAK:

Hasteko, web-orri bat irekiko dugu gure fundei buruzko informazioa argitaratzeko eta produktua saltzeko. Horrez gain, mugikor fundak saltzen dituzten dendei gure produktua salduko diegu.

Web –orriaren salmentei dagokionez, etxez etxeko zerbitzua eskainiko diogu bezeroei, Correos erabiliz eta 3 eguneko bidalketa denborarekin. Halere, bidalketa egiteko gastuak bezeroak ordaindu beharko ditu, eta Espainiatik kanpokoak extra bat ordaindu beharko dute.

Beste alde batetik, gure produktuaren publizitatea egiteko, gazteei zuzenduta dagoen produktu bat denez, tiktok-en eta beste sare sozialen bidez promozionatuko gara, gure produktua jakitera emateko dohainezko era bat da eta. Gainera, “influencer” batzuekin harremanu egingo gara, gure produktua haien sareetan promozioa egiteko diru kantitate baten ordez.